

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3861

128/2016 EBAZPENA, 2016ko abuztuaren 26koa, Uribe ESiko zuzendari gerentearena. Honen bidez iragartzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESiko Aparatu Digestiboko atalburu sanitarioaren lanpostu bat lehiaketaren bidez betetzeko deialdia.

Uribe ESiko Aparatu Digestiboko atalburu sanitarioaren lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Zuzendaritza Gerentzia honek lanpostu hori lehiaketa bitartez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du honako arauak xedatukoaren arabera: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen hirugarren arau arruntaren 28. artikulua, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua. Hauek dira oinarriak:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Estatutarioa, funtzionarioa edo lan kontratudun finkoa izatea Osakidetzako edozein zentrotan, edo pertsonal estatutario finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko Erakunde Sanitarioetan, eta A1 lanbide-taldekora izatea.

b) Medikuntzan lizentziatura eta Aparatu Digestiboko espezialitatearen titulazioa edukitzea.

c) Gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia izatea Ospitale Fak. Esp. Aparatu Digestiboko bezala.

2.– Deialdia argitaratzea.

Ebazpen hau osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian, Uribe ESiko intraneten, bai eta Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietan ere.

3.– Eskabideak non eta noiz aurkeztu.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESiko Pertsonal Zuzendaritzan (Alango kalea 30, 48992 Getxo) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, ebazpena dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den azken egunaren biharamunetik aurrera.

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin beteta eta dokumentatutako curriculum vitaearekin batera Uribe ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa hau da:

a) NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia konpultsatua.

b) Funtzionario edo langile estatutario izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

c) Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua (Lanpostu Funtzionalen Dekretuaren arabera).

d) Egindako zerbitzuen ziurtagiri original eguneratua, deialdia dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den azken eguneko kategoria zein den adierazita.

e) Bete nahi den saileko kudeaketari buruzko txosten proiektua.

f) Meritu baloragarri guztien fotokopia konpultsatua.

CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta dutenek ez dute aurreko para-grafoan zehazten den moduan egiaztatu beharko. Hala ere, izangaiak halaxe adierazi beharko du eskabidea betetzean.

4.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribe ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, horren bidez aginduko du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Uribe ESIko intraneten argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den azken egunaren biharamunetik hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

5.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioetarako epea amaituta, Uribe ESIko zuzendari gerenteak, ebazpen baten bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Uribe ESIko intraneten.

6.– Epaimahai kalifikatzailea.

1) Kudeaketa Zuzendaritzak Balorazio Batzordeko kideak izendatuko ditu. Ebazpen hori Osakidetzaren webgunean argitaratuko da, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, erakunde publikoko zuzendari nagusiaren aurrean. Jarraibide honetako zortzigarren puntuan aipatutako kudeaketa-proiektuak defendatzeko saio publikoa egin baino gutxienez 10 egun lehenago argitaratu beharko da ebazpena.

2) Balorazio Batzordeko burua zuzendari medikoa izango da eta kide hauek izango ditu: Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde mediko edo zerbitzuburu korporatiboa, Langileen Kudeaketako zuzendaria (idazkari gisa jardungo du eta bozkatzeko ahalmena edukiko du) eta hiru kide –horietako bat IVAPek izendatuko du–. Hiru horiek izangaiei eskatutako titulazioa eta espezialitatea eduki beharko dituzte, estatutupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo langile finkoak izan beharko dira, eta deialdian eskainitako lanpostuaren maila funtzional bereko edo goragoko lanpostu funtzional bat izan beharko dute. Batzordeko kide titular bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da, aurrekoak huts eginez gero haren lekua hartzeko, eta kide titularrentzat zehaztutako baldintzak bete beharko ditu. Aipatutako posturen bat ez baldin badago edo hutsik baldin badago, Osakidetzako beste edozein zerbitzu-erakundetako maila baliokideko langile bat izendatu ahal da epaimahaiko kide.

3) Balorazio Batzordeko kide guztiak modu indibidualean izango dira batzorde horretako kide. Funtzionamenduari dagokionez, independenteak izango dira eta diskrezionalitate teknikoaren babespean jardungo dute, zuzenbidearen pean daudela alde batera utzi gabe. Osaerak emakume eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa beteko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, egoerek aukera ematen badute. Beraz, sexu bakoitza ehuneko berrogeian ordezkartuta dagoenean, ordezkapen orekatua dagoela iritziko da.

4) Batzordeko kideek esku hartzeari uko egin beharko diote, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan aipatutako egoeraren bat gertatzen bada, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Kasu beretan, prozesuko parte-hartzaileek, edozein unetan, errekusazioa sustatu ahal izango dute, aipatutako lege-testuaren 29. artikuluan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, Balorazio Batzordeak aipatutako 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27.era arte zehaztutako arauetara egokitu beharko du bere jarduna.

5) Balorazio Batzordeko kide guztiek hitza eta bozkatzeko ahalmena edukiko dute. Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta akta batean jasoko dira.

6) Batzordeak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta horren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du. Halaber, deialdiko oinarrien aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta aurreikusi gabeko kasuetan, zein irizpide ezarri finkatuko du. Gainera, izangaiak ebaluatu baino lehen, ebaluatzeko irizpide zehatzak akta batean jaso beharko ditu, bertan jasotako oinarriei eta merezimenduen baremoari jarraituz.

7.– Izangaiei deitzea.

Proiektua defendatzeko, banakako jakinarazpena egingo zaie izangaiei, gutxienez, 10 egun aurretik, Jakinarazpenean jasoko dira eguna, tokia eta ordua proiektua jende-aurrean defendatzeko. Proiektuan defentsa publikoetako egutegia Osakidetzako web-orrian argitaratuko da. Epaimahaiak proiektuen defentsa publikoaren aurretik egiaztatu beharko du izangaiek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela, eta ez dagoela Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan jasotako abstentzio eta errekusazio arrazoirik.

8.– Hautatzeko prozedura.

Epaimahaiak dokumentazioa baloratu behar du, betiere hautagaiek behar den epean eta moduan aurkeztu badute. Ezingo dira baloratu, inolaz ere, ebazpen hau dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den azken egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta ziurtatu ez direnak ere. Ondoko eranskinean, hautaketa-prozesu honi aplikatu beharreko meritu-baremoa jasotzen da. Gehieneko puntuazioa 66 puntu dira, eta honela banatzen dira:

- Proiektua eta defentsa (gehienez, 30 puntu).
- Merituen balorazioa (gehienez, 30 puntu).
- Euskararen ezagutza (gehienez, 6 puntu).

Prozedura bi fasetan garatuko da:

A.– Proiektuaren banakako aurkezpena eta jendaurreko elkarrizketa. Izangai bakoitzari deialdiaren oinarrien araberako puntuazioa emango zaio.

B.– Merituen balorazioa, deialdiaren oinarrien arabera, banakako balorazio eta puntuazioarekin.

Gutxienez, prozesu osoan 33 puntu lortu beharko dira lanpostuaz jabetu ahal izateko, eta 15 puntu lortu beharko dira, gutxienez, proiektuaren balorazioan eta haren defentsan. Prozedura osoa aktan jasoko da.

9.– Prozeduraren ebazpena.

Prozedura bi fasetan ebatziko da:

2016ko irailaren 9a, ostirala

A.– Epaimahaiaren proposamena ESIko Gerentzia Zuzendaritzari puntu gehien atera dituen izangaiaren alde, edo, hala badagokio, hornitzeko deialdia bete gabe uzteko proposamena.

Proposamena Epaimahaikide guztiek sinatu beharko dute, banakatu egin beharko dira baremoko atal bakoitzean lortutako puntuak, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Uribe ESIko intraneten argitaratuko dira.

B.– Gerentzia Zuzendaritzak Ebazpena emango du, eta bertan:

B.1.– Epaimahaiak proposatutako izangaia izendatuko da. Aukeratutako pertsonak lanpostuari uko eginez gero, hurrengo puntuaziorik onena lortu duen pertsona izendatu ahal izango da, baldin eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen baditu.

B.2.– Deialdia bete gabe utzi ahal izango da arrazoi hauengatik:

- Izangairik ez aurkeztea.
- Izangaiek betekizunak ez betetzea.
- Izangaiek gutxieneko puntuazioa ez lortzea.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Osakidetza–Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Uribe ESIko intranetean argitaratuko da.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

10.– Esleipenaren ondorioak.

Izendapen-ebazpenak ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denetik. Euskadiko antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legearen 28 ataleko 3. arauaren 8. puntuan xedatutakoaren arabera, Burutzako lanpostu funtzionalek lau urteko eperako izendapen tenporala eduki dezakete; lau urteko izendapen hori luza daiteke arau honetan ezarritakoaren arabera.

11.– Ebazpen honen aurkako errekurtsuak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza - Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpen hau dagokien Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den azken egunaren biharamunetik hilabeteko epean.

Getxo, 2016ko abuztuaren 26a.

Uribe ESIko zuzendari gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.

I. ERANSKINA

OSASUN ARLOKO ZERBITZUBURU- ETA ATALBURU-LANPOSTUEN DEIALDIETARAKO
MEREZIMENDUEN BAREMOA

MEREZIMENDUEN BAREMOA (GEHIENEZ, 66 PUNTU)

Merezimenduen balorazioak fase hauek izango ditu:

I. Proiektua eta horren defentsa (gehienez, 30 puntu).

Izangaiek dagokion Atalaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko memoria-proiektu bat aurkeztu beharko dute, kalifikazio-epaimahai baten aurrean aurkezpen publikoa egin beharko dute eta epaimahaiko kideek planteatutako galderei erantzun beharko diete.

Fase horretako puntuazioa bi atal hauetan banatuta dago:

A.– Aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria-proiektuaren edukiaren balorazioa (gehienez, 15 puntu).

Kudeaketari buruzko memoria-proiektuan, gutxienez, hurrengo atalak garatu beharko dira:

a.1.– Antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako atala (7 puntu).

Zerbitzu/atalaren organigrama, bai buruzagitza-postuaren bai horri atxikitako gainerako postuen funtzioak adierazita.

Zerbitzuak/atalak erakunde bereko beste zerbitzu batzuekin duen harremana.

Buruzagitza/atala kudeatzeko plana, antolaketa-helburuak definituta, hobetu beharreko eremuak aztertuta eta hautemanda eta horiek lortzeko egokiak diren neurriak identifikatuta. Horrekin batera, esleitutako baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak modu efizientean erabiltzeko konpromisoa edo plana.

a.2.– Osasun-laguntzarekin lotutako atala (5 puntu).

Osasun-laguntzako zerbitzuen zorroaren deskribapena.

Osasun-laguntzaren helburuak eta adierazleak finkatzea, eta horrekin batera, horien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat.

a.3.– Irakaskuntzaren eta ikerketaren atala (3 puntu).

Ataleko irakaskuntzaren plangintza zehaztea.

B.– Memoria-proiektua Balorazio Batzordearen aurrean publikoki aurkeztea (gehienez, 15 puntu).

Proiektuaren aurkezpen publikoa baloratzeko orduan, memoria-proiektuaren defentsa modu argian eta zehatzean egitea baloratuko da, baita horren alderdi esanguratsuenak azaltzeko ahalmena ere. Dagokion aktan, kide bakoitzak hautagai bakoitzari emandako puntuazioaren justifikazioa jaso beharko da. Proiektuaren defentsaren argitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira, baita proiektuaren alderdi esanguratsuenak azaltzeko ahalmena ere.

II.– Merezimenduen balorazioa (gehienez, 30 puntu).

Puntuazioa honela banatuko da:

II.1.– Laneko esperientzia (gehienez, 13 puntu).

Dagokion espezialitatean fakultatibo gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,0500 puntu.

Dagokion espezialitatean atalburu gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.

Dagokion espezialitatean zerbitzuburu gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Dagokion espezialitatean osasun-arloko administrazio publikoetako zuzendari gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Osakidetza eta Gizarte Segurantza osasunaren arloko zerbitzu-erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako edo edozein administrazio publikotako osasun-zerbitzuetan egindako lana lan-esperientzia gisa baloratuko da, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko osasun-zerbitzuetan egindako lana ere.

Gutzizko denbora zenbatzeko, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan eta hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak ez dira zenbatuko. Ildo horretan, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

II.2.– Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkuntza (gehienez, 17 puntu).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,1 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko.

II.2.1.– Kudeaketan prestakuntza izatea (gehienez, 3 puntu).

Osasunaren arloko kudeaketarekin lotutako ikastaro bakoitzera joateagatik emango den puntuazioa, iraupenaren arabera:

– 20 orduetik 30era: 0,2000 puntu.

– 31 orduetik 50era: 0,3000 puntu.

– 51 orduetik 100era: 0,4000 puntu.

– 101 orduetik 200era: 0,5000 puntu.

– 200 orduetik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, osasun-erakundeek, eta kasuan kasu, elkargo profesionaletan edo elkarte zientifikoek emandako ikastaroak baloratuko dira. Era berean, Osakidetza edo edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.2.– Espezialitateko etengabeko prestakuntza (gehienez, 3 puntu).

Dagokion lanpostuko espezialitatearekin lotutako ikastaro bakoitzera joateagatik emango den puntuazioa, iraupenaren arabera:

20 orduetik 30era: 0,2000 puntu.

31 orduetik 50era: 0,3000 puntu.

51 orduetik 100era: 0,4000 puntu.

101 ordutik 200era: 0,5000 puntu.

200 ordutik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, osasun-erakundeek, eta kasuan kasu, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako ikastaroak baloratuko dira. Era berean, edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.3.– Graduondoko prestakuntza (gehienez, 5 puntu):

- Doktorea: 3 puntu.
- Doktorea cum laude: 4 puntu.
- Graduondoko masterra: 2 puntu.
- Unibertsitateko aditu/espezialista: 1 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma: 1 puntu.
- Doktorego-ikastaroa, doktorego-ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,1000 puntu.

Doktore, doktore cum laude, ikertzeko nahikotasun edo ikasketa aurreratuetako titulu bat lortzeko balio izan duten programetako doktorego-ikastaroak ez dira baloratuko.

II.2.4.– Jarduera zientifikoa (gehienez, 3 puntu).

Dagokion espezialitatearekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratu, txostenak aurkeztu, komunikazioak egin, hitzaldiak eman edo mahai-inguruetan parte hartzeagatik:

- Eskualde bateko txosten-aurkezpen bakoitzeko: 0,2500 puntu.
- Txosten-aurkezpen nazional bakoitzeko: 1,000 puntu.
- Nazioarteko txosten-aurkezpen bakoitzeko: 1,500 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio / poster bakoitzeko: 0,1500 puntu.
- Ahozko komunikazio / poster nazional bakoitzeko: 0,6000 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio / poster bakoitzeko: 1,0000 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,2000 puntu.
- Mahai-inguru nazional bakoitzeko: 0,7500 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,2500 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.

– Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.

– Tesina bakoitzeko: 1,5000 puntu.

II.2.5.– Irakaskuntza-jarduera (gehienez, 3 puntu).

– Medikuntzako fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatekoa (urteko): 1,0000 puntu.

– Medikuntzako fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,5000 puntu.

– Medikuntzako fakultateko irakasle elkartua, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,2500 puntu.

– Egoiliarren irakaskuntzarako onetsitako tutorea, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,5000 puntu.

– Etengabeko prestakuntzako programa ofizialetako irakaskuntza (orduko: 0,050 puntu).

III. Euskara-ezagutza (gehienez, 6 puntu).

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta berau garatzeko arauetan jasotakoaren arabera baloratuko da.